



Curriculuma	Eli Pombo
--------------------	-----------

Kazetaria da eta UOC unibertsitatearen eskutik Multimedia Graduatua dauka.

Hedabide desberdinetan (Euskadi Irratia, ETB, Euskaldunon Egunkaria...) kolaborazio desberdinak egiten ibili ondoren, bost urtez ARGIA aldizkariko eta ARGIA.com-eko erredakzioetan egin zuen lan. Ondoren ARGIAko Internet saileko arduraduna izan zen beste lau urtez. Handik lametza Interaktiboko zuzendaritzara pasa zen. Gaur egun bertan zeregin desberdinak burutzen ditu. Besteak beste, enpresaren kudeaketa orokorra darama, bezeroekin harremana eta merkatuko joeren zaintza. Teknologia Berriak, euskara eta komunikazioa maite ditu eta hiru ardatzak uztartzen diren bidegurutzean burutzen du bere eguneroko jarduna.